



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/05

Bizkaiko Foru Aldundiak Bardintasunean adituak diran lau teknikari lanpostu barri sartuko ditu, bere politika eta arautegi guztietan genero ikuspegia sartzeko

Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailak Bardintasunean adituak diran lau teknikari lanpostu barri sartuko ditu datozan hiru hilebeteetan. Holan iragarri dau gaur Teresa Laespada Diputatuak (PSE-EE) Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Batzordean. Atoan egingo diran lau kontratazino horreen xedea, joan dan bagilaren 20an onetsi zan Bardintasunerako 4/2018 Foru Araua betetea da. Arau horretan hainbat neurri garrantzitsu jasoten dira. Horreen artean, esaten da beharrezkoa dala genero ikuspegia sartzea foru politika publikoetan eta arautegi osoa Genero Eraginaren ganeko Aurretiazko Txostenen bitartez aztertzea. Lau lanpostu barri horreek, Bardintasunean adituak diran beharginen kontratazino prozesuaren hasierea baino ez dira, “Bizkaiko Foru Aldundian genero politiken zeharkakotasuna” lortzeko.

Laespada EH Bilduk eskatuta etorri da Bizkaiko Batzarretako Batzordearen aurrera, 2018ko ekitaldian zehar egindako Genero Eraginaren Aurretiazko Txostenak ebaluetan dituan txostenaren barri emoteko. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Diputatuak azaldu dauenez, igaz beste horrenbeste arautegiren ganeko 273 txosten emon ziran, 2017an egindakoak baino 85 txosten gehiago, hain zuzen be. Egindako 273 txostenetatik, 190etan genero ikuspegia sartzea beharrezkoa zala ikusi da eta, hori dala eta, aldaketak proponidu dira, Bardintasunerako Foru Araura egokitzeko. Ganerako 83etan, barriz, ez da beharrezkoa ikusi zeharkako neurririk sartzerik.

Laespadak garrantzia kendu deutse txosten horreei, eta “bardintasuna lortzeko politika guztietan genero ikuspegia sartzeko tresnea” dirala esan dau. Emakumeei eta gizonei zuzenduta dagozanez arauzko xedapenak “neutroak” dirala dinon eretxiaren aurrean, Laespadak esan dau “beharrezkoa dala kontuan izatea, hasieratik, emakumeen eta gizonen artean dagon desbardintasuna, desbardintasun hori betirako ez luzatzeko”.

Izan be, aztertu dan arauzko xedapen bakotxean, neurri zuzentzailea eskatzen eban adierazle bat hauteman da gitxienez. Hori da Laespadak emon dauen datuetako bat, eta, esan dauenez, txosten bakotxak, batez beste, jaso dauen neurri zuzentzaile kopurua 4,3koa dala. Lengoia ez sexistaren erabilera, %88gaz eta sexuaren ondoriozko diskriminazioa, %44gaz, dira igaz egindako Genero Eraginaren Aurretiazko Txostenek hauteman dituen zuzendu beharreko neurrietako batzuk.

Bere berbaldiaren ostean, Batzarretako EH Bildu taldeko Arantza Urkaregi batzordekideak hartu dau berbea, Bizkaiko Aldundiko politikariak eta teknikariak sentsibilizetako beharra azpimarratzeko, “2015etik indarrean dagozan legeak diralako, lengoia ez sexistea erabili beharra, besteak beste”. Urkaregi itxaropentsu agertu da, aurton Bardintasunaren ganeko Foru Araua betetea aurrera egingo dalakoan.

Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) iragarri dauenez, galderaren bat planteauko dau Laespadak aurkeztu dauen txostena kontu handiz aztertu eta gero. Antzeko zer edo zer esan dau Eduardo Andrések (Bizkaiko Talde Popularra), “geure zalantzak txostena aztertu eta gero planteauko doguz” esanez.

Genero Eraginaren Aurretiazko Txostenak “tresna bikaina” dirala esan ostean, Eneritz De Madariagak (Podemos Bizkaia) esan dau penagarria dala “sail batzuk genero ikuspegia sartzearen aurrean traba gehiago jarten dituela ikustea”, adibide moduan Ekonomia eta Ogasuna aitatzuz.

Juan Oterminek, Euskal Sozialistak taldearen izenean, “bideratu deuskun txostenaren xehetasuna eta zabaltasuna” eskertu deusaz Bardintasun Diputatuari. Euzko Abertzaleak taldearen izenean, Irene Edesak be zoriondu egin dau Laespada, “bere Sailak egin dauen behararengaitik” eta gaurko Batzordean egindako informazino eskariari emondako “erantzun argiarengaitik”.

Erantzuteko txandan, Laespadak adierazo dauenez, Bardintasunerako Foru Araua beteteko orduan aurrera egiteko garrantzitsuena “genero ikuspegian, prestetea, prestetea eta prestetea da, eta prestakuntza hori Aldundiko teknikari guztiengan barneratzea”. De Madariagari (Podemos Bizkaia) erantzunez, Laespadak esan dau arau horren aplikazinoak “ez daukala horrenbeste zerikusirik foru sail bakoxtagaz, beste ezaugarri batzuekaz baino, teknikari taldearen tamainuagaz eta mobikortasunagaz, beste batzuen artean”. “Ekonomia eta Ogasun Sailean badagoz prestatutako Bardintasun teknikariak”, azpimarratu dau.

Ahozko hiru erantzun-eske

Gaur egin dan Batzordean, Teresa Laespada Foru Diputatuak EH Bilduk egindako ahozko hiru erantzun-eskeri be erantzun deutse. Arantza Urkaregi Batzarretako talde horretako batzordekideak, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontsejuari eta Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Lurralde sareari buruzko erantzun-eske bi, eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak eguneratzen eta arautzen dituan Foru Araurako Genero Eraginaren Garrantzi Ezaren ganeko azalpenak eskatzeko hirugarren bat planteau ditu. Urkaregik gogora ekarri dauenez, ekimen biak 4/2018 Bardintasun Arauaren ondorioa dira, eta daborduko martxan jarrita egon beharko litzatekez.

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontsejuari jagokonez, Teresa Laespadak azaldu dauenez talde motorra eratu da Aldundiko teknikariakaz eta Equipare e Incideren laguntza espezializauagaz, eta Aldundiko teknikarien laguntzea euki daben tailerrak egin dira hainbat udalerritako 34 Bardintasun agentegaz. Laespadak iragarri dauenez, bagilean bere Sailak Kontseju barri horren eraketarako Estatutua idatziko dau.

“Legealdia bukatu aurretik Kontsejuak bere arautegia eukiteko ahalegina egin beharko geunke”, eskatu dau Urkaregik eta gauza bera esan dau Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Lurralde sarea martxan jarteari jagokonez. Hori izan da EH Bildu bere taldeak Bardintasun Diputatuari egin deutson bigarren ahozko erantzun-eskearen gaia. “Gipuzkoak eta Arabak badaukie daborduko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako euren Sarea, baina Bizkaia ez”, esan dau Urkaregik. Bere erantzunean, Bardintasun Diputatuak adierazo dauenez, “beharra mugatu deuskuna hauteskundeen aurrerapena izan da; behar politikoak eta teknikoak kurutzatzen jakuz”. Dana dala, Laespadak nabarmendu dauenez, beharrak aurrera jarraitzen dau, eta hurrengo agintaldian be aurrera jarraituko dau.

EH Bilduk Laespadari egin deusan hirugarren eta azken ahozko erantzun-eskean, talde horrek Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak eguneratzen eta arautzen dituan Foru Araurako Genero Eraginaren Garrantzi Ezaren ganeko azalpenak eskatu ditu. Bardintasun Diputatu bat etorri da Urkaregigaz, eta esan dau arau horri genero ikuspegian oinarritutako neurri zuzentzaileak aplikau behar jakozala, eta oraindino behar asko dagola egiteko autortu dau. “Genero ikuspegia Aldundiko behargin eta politika guztien artean joango da zabaltzen, teknikarien Bardintasun arloko prestakuntzan aurrera egiten dan eta Bardintasun arloan adituak diran teknikariak sartzen diran neurrian”, esan dau bukatzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
05/03/2019

La Diputación Foral de Bizkaia incorporará cuatro nuevas plazas de personal técnico experto en Igualdad para incluir la perspectiva de género en todas sus políticas y normativas

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad incorporará en los próximos tres meses cuatro nuevas plazas de técnicos y técnicas expertas en Igualdad. Así lo ha anunciado hoy la Diputada Teresa Laespada (PSE-EE), en la Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia. El objetivo de estas cuatro contrataciones inminentes es posibilitar el cumplimiento de la Norma Foral de Igualdad 4/2018, aprobada el pasado 20 de junio, y que contempla una batería de medidas importantes. Entre ellas, marca la obligatoriedad de incluir la perspectiva de género en el conjunto de las políticas públicas forales y de revisar toda su normativa mediante Informes Previos de Impacto de Género. Estos cuatro nuevos puestos de trabajo son sólo el inicio de un proceso de contratación de personal experto en Igualdad para conseguir “la transversalización de las políticas de género en el conjunto de la Diputación Foral de Bizkaia”.

Laespada ha comparecido hoy ante la citada Comisión de la Cámara foral de Bizkaia, a petición de EH Bildu, para informar del análisis que evalúa los Informes Previos de Impacto de Género realizados a lo largo del ejercicio 2018. La Diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad ha explicado que a lo largo del año pasado se emitieron un total de 273 informes sobre otras tantas normativas, en concreto, 85 informes más de los que se realizaron en 2017. De los 273 informes, 190 han considerado necesario incorporar la perspectiva de género y, por tanto, han instado modificaciones para ajustarlas a la Norma Foral de Igualdad, mientras los 83 restantes no han considerado oportuno incluir medidas transversales.

Laespada ha destacado la importancia de estos informes, que ha calificado de “herramienta de integración de la perspectiva de género en todas las políticas para la consecución de la igualdad”. Frente a la opinión de que las disposiciones normativas son “neutras” porque se dirigen tanto a mujeres como a hombres, Laespada ha argumentado que “es necesario tener en cuenta de partida la desigualdad entre mujeres y hombres para no perpetuar la desigualdad”.

De hecho, en cada disposición normativa analizada, se ha detectado al menos un indicador que exigía una medida correctora. Es uno de los datos que ha facilitado Laespada, quien ha añadido que la media de medidas correctoras por informe ha sido de 4,3. La utilización de lenguaje no sexista, con un 88%, y la discriminación por razón de sexo, con un 44%, son algunas de las medidas a corregir que han detectado los Informes Previos de Impacto de Género realizados el año pasado.

Tras su intervención, ha tomado la palabra Arantza Urkaregi, vocal del grupo juntero EH Bildu, para incidir en la necesidad de sensibilizar al personal político y técnico de la Diputación de Bizkaia pues, como ha destacado, “hay leyes que están en vigor desde 2015, como la obligación de utilizar un lenguaje no sexista”. Creo que queda un largo camino por transitar”, ha añadido Urkaregi, quien ha mostrado su esperanza de que este año se avance en el cumplimiento de la Norma Foral de Igualdad.

Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha anunciado que planteará alguna pregunta tras estudiar el informe presentado por Laespada con detenimiento. En el mismo sentido se ha pronunciado Eduardo Andrés (Grupo Popular Vizcaíno), señalando que “plantaremos nuestras dudas después de analizar el informe”. Tras calificar los Informes Previos de Impacto de Género de “herramienta estupenda”, Eneritz De Madariaga (Podemos Bizkaia) ha lamentado que “parece que hay departamentos más reacios a incorporar la perspectiva de género”, citando como ejemplo al Departamento de Economía y Hacienda.

Juan Otermin, en nombre de Socialistas Vascos, ha agradecido a la Diputada de Igualdad “el detalle y amplitud del informe que nos ha facilitado”. Por parte de Nacionalistas Vascos, Irene Edesa ha felicitado a Laespada “por el trabajo realizado por su Departamento” y por “la respuesta clara” que ha dado a la petición de información en la Comisión celebrada hoy.

En su turno de réplica, Laespada ha subrayado que para avanzar en el cumplimiento de la Norma Foral de Igualdad, la clave está en “formar, formar y formar en perspectiva de género y que esa formación vaya calando en todo el personal técnico de la Diputación”. Contestando a De Madariaga (Podemos Bizkaia), Laespada ha precisado que la aplicación de la citada norma “no tiene tanto que ver con el área de cada departamento foral, sino con características como el tamaño y la movilidad del personal técnico”. “Ya hay técnicos en Igualdad formados en el Departamento de Economía y Hacienda”, ha subrayado.

Tres preguntas orales

En la Comisión celebrada hoy, la Diputada foral Teresa Laespada ha contestado además a tres preguntas orales, todas ellas formuladas por EH Bildu. La vocal de este grupo juntero, Arantza Urkaregi, ha pedido explicaciones sobre los pasos dados en los procesos participativos para la creación, por un lado, del Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia y, por otro, de la Red Territorial para la Igualdad de Mujeres. Urkaregi ha recordado que ambas iniciativas son fruto de la Norma de Igualdad 4/2018 y que se tendrían que haber puesto en marcha ya.

Respecto al Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia, Teresa Laespada ha explicado que se ha creado un grupo motor con personal técnico foral y la asistencia técnica especializada de Equipare e Incide, se ha realizado un mapeo de colectivos y agentes para incorporar diferentes miradas y perspectivas, y se han organizado talleres en los que han colaborado técnicos y técnicas de la Diputación con 34 agentes de Igualdad de diferentes municipios. Laespada ha anunciado que en junio su Departamento redactará el Estatuto de composición de este nuevo Consejo.

“Deberíamos intentar que el Consejo tuviera ya su normativa antes de que acabe la legislatura”, ha pedido Urkaregi, quien ha señalado lo mismo respecto a la puesta en marcha de la Red Territorial de Hombres y Mujeres de Bizkaia, tema de la segunda pregunta oral de su grupo, EH Bildu, a la Diputada de Igualdad.

“Gipuzkoa y Araba ya tienen su Red de Hombres y Mujeres y Bizkaia, no”, ha lamentado Urkaregi. En su respuesta, la Diputada de Igualdad ha atribuido “al adelanto electoral que nos ha restringido el trabajo; se nos cruzan las tareas políticas y las técnicas”. En todo caso, Laespada ha concluido que el trabajo continúa y continuará en la próxima legislatura.

En la tercera y última pregunta oral de EH Bildu a Laespada, este grupo juntero ha pedido explicaciones sobre la falta de relevancia de impacto de género acordada sobre la Norma Foral que actualiza y regula las tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. La Diputada de Igualdad ha coincidido con Urkaregi, precisando que a esa norma deberían haberse aplicado medidas correctoras desde la perspectiva de género, y reconociendo que aún queda mucho trabajo por hacer. “La perspectiva de género se irá extendiendo entre todo el personal y las políticas forales en la medida en que se avance en la formación en Igualdad del personal técnico y se incorporen técnicos expertos en Igualdad”, ha concluido.